

Euskaldunaren izate ezinezkoaren adierazgarri

 Begizolia | 2026-09-01 19:31



Agerre

Juan Luis Zabala

Erein, 2026

Hainbat erro, irakurketaren norabidean

1. Liburuaren nondik norakoa ezagutzeko, irakur ezazu kontrazaleko deskribapena.
2. Azalak eman dezakeena baino harago doa liburuaren funtsa, tira, ikusi batez irudi lezakeenaz harago.
3. Juan Luis Zabala txirrindularitza zalea duzu. Pentsa zenezake txirrindularitzaren edo zikloturisten inguruko “istorio sotil” bat dela. Bada, ez. Harago doa, aise joan ere.
4. ETA fenomeno soziopolitiko armatuaren “hausnarketa” hagitz estimagarria duzu. Euskal gatazkaren *auzia kausa kasua arazoa* ulertzeko lagungarria.
5. Nobela gomendagarria begitandu zait, bai egungo neraberentzat, hala adineko pertsonentzat nola tarteko belaunaldientzat bame.
6. Liburua, nobela hau, bere txikitasunean “handia” duzu.
7. Literatura den aldetik –egiaz honatago eta gezurraz haratago, hor nonbait– “herri” honek iragan mendi erdi luzean esperimentatu izan duen –edo jadaneko izan zuen– “sukarra” sendatzeko baltzamo moduko bat da. Sendatu nahi duenarentzako betiere, noski.

Gomendio bat edo bertze

Liburuaren atarikoan eta hiru atalen atarian hainbat idazleren *aipua*k edo epigrafeak irakur ditzakezu, baita epilogo laburrean sartu aitzinekoak ere. Irakurri itzazu patxadaz.

Esanguratsuak dira hagitz. Une batez “ulergaitzak” izan dakizkizuke. Guztiz ulergarriak, erran nahi dut. Liburutako aipua

k euren testuinguruan ulertu behar baitira.

Lehen lau aipuen egileek, euskaldunak direnez gero, euskaldunak diren aldetik, izan dute “euskal gatazka” deituarekin *inbolukrazio* moduko bat. Kasuren batean edo bestean, parte-hartze edo konpromiso moduko bat ere bai.

Lau aipuek zer pentsatua ematen dute. Aipua baina, erran bezala, usaian testuinguruz kanpo interpretatu ohi ditugu. Lehen atalaren aipua, luzea izan arren, zaila izan zait “ulertzea”. Alabaina, atalaren une batera iritsita ulertu ahal izan dut. Beste hirurek ere, hain ziur ere, nobelan pasarteren batean edo bestean funtsa hartzen dute.

Nobelaren egituraz

1. ERRIETA duzu lehen atalaren izenburua. Atal honek nobelaren erdia hartzen du. Sarrerako aipua (Ramon Saizarbitoriarena) ama eta seme baten arteko errieta bati buruzkoa duzu. Latza gero pasartea!

2. MESEDEA, bigarrena. Abantzu bertze erdia hartzen du atalak. Bi aipu dituzu atarian. Sergei Netxáiev iraultzaile errusiararena, bat. Mugimendu nihilista eta anarkistekin *inbolukratua*. “Iraultzaeren garaipena” duzu bere leitmotiba. Motibo nagusia eta bakarra. Bestea, Dolores González Kataráin Yoyes-ena. Aipua –epigrafeak– bere belaunaldikoe

k bizi izan zuten “sukarra” ematen du aditzera.

Zer erran? Bada, hauxe: “iraultza” jendartearen “sukarra” bat dela.

3. SUSMOA. Atala laburra da oso. Bi aipu: Jon Alonsorena, bat. Historiaz ari zaigu. Hots, batzuek historiagileak dira edo gara, bertze batzuk historialariak. Historia egiten dutenek, komunzki, biziki sufritu egiten dute. Latz sufritu ere. Bertzeak historia kontiatzeko jaiok dira edo gara.

Natalia Ginzburgen aipua duzu bigarrena. Heziketaz ari zaigu. Behin hazi eta gero, heziketaren orbaina garbitzen ematen dugu bizitza. Heziketaren grina gaiztoak, “espirituak” bere hitzetan, purgatu beharraz ari zaigu idazlea. Hor nonbait.

Epilogoaren atarian bi aipu

Jose Maria Iparragirre urretxuar bardoarena, bat. Azkoitiko herri-kanta baten bi lerrokoa, bigarrena. Euskalduna Euskal Herrian eta Munduan moldatu nahiaren –eta behararren– eta ezinaren testigantzak begitandu zaizkit: euskalduna kontrakarrean. Oldartu beharrez, bizirik iraunen bado. Munduaren kontrakarrean edo. Euskalduna munduan kokatu ezinean. Bere alurri eta jite oldarkoraren eta otzanduaren adierazleak.

Alabaina, eta aldi berean, nire ikusmolde hori kontraesankorra izan badaiteke ere, *aipu esperantzagarriak* legez hartu ditut.

Nobelaren barna joateko hainbat kontzeptu

Nobelaren funtsaz aritu nahi dut, ahalaz, modu sotil batez. Nolabait erranik hori ere. Hartaz, hainbat pista eman nahi dizut nobelan kokatzeko. “Euskal gatazka” deituaren izate dikotomikoaren –oldarkor eta otzan– ildoan joan zaitezten.

1. Urrarieta eta Atekaitz. Nobelako auzoen izenak dira. Beren etimologia ez da hutsala.
2. Agiña eta Agerre: protagonisten baserrien izenak.
3. Josu eta Pello: bi baserri horietako semeak. Etakidea bata. Iheslaria. ETaren aurkakoak bestea. Baina, “etakide” ere izan zitekeena. Potentzialki, erran nahi dut.
4. Mari Karmen eta Josu: ama eta semea. Agiñatarak. ETAzaleak biak ala biak.
5. Pello eta Ane: agerretarrak. Aita eta alaba. *Kulpamari* eta *Marikulpa*. Alaba, *iheslaria*. Urrarrietatik “ihes” joan dena. Sorteria laga zuena, ikasketen bidean. Ez haatik, Josu iheslariaren jaiduraren ildoan “ihes egina”.
6. Mari Karmen eta Izaskun: ama eta alaba. Josu etakidearen ama eta arreba.
7. Ane eta Lucho: Lucho bikote kolonbiarra, atzerritarra. Bikote atzeritarra. Bi atzerritar Suedian.

Nobelaren literatura tasunaz

Nobela batek tentsioa behar du, generoari dagokion thriller xarmatuaren ildoan. *Agerrek* atezuan atxikiko zaitu. Izan ere, badauka, bere txikian tentsioari eusteko une tirabiratsu doi-doi horiek. Kasurako, euskaldunon arteko harremanetan jalgitzen diren une larri eta estu horiek antzemanen dituzu. Oso esanguratsuak eta pizgarriak idazlearen narratzeko trebetasuna dela medio.

Juan Luis Zabalaren idazmoldea zuzena da. Bere kontakizunak –fikziozkoak, beraz– ez dira fantasiazkoak. Nire inpresioa duzu, noski. Metaforak ere arrunt gutxi izaten dira bere istorioetan, edo agian, ausartuko nintzateke erraten, nekez aurkituko duzu halakorik. Euskal literaturan hizkera argirik bada –beste idazle batzuk ere egon badaude argiak, jakina–, bere hizkera zehatza duzu hasi eta buka.

Nobelaren funtsaz

Agerre nobelako pertsonaien izate emozionalak ikaragarriak dira. Mari Karmen, kasurako, euskaldunon jite emozionalaren muturreko kasu patologikoa dugu. Ane –Pelloren alaba– beste muturrean dago. Bestelako jitea duzu berea, zorionez. Zorionez edo. Nire aburua duzu. Besterik ez. Izate horiek osatzen dute nobela. Nobelako euskal pertsonaiez bertzera, bestelako pertsonaiak ere badaude. Euskaldun ez diren pertsonaiak. Pertsonen izaerak kontrastatu ahal izateko baitzepadakoak.

Agerre ausarta begitandu zait. Pello euskaldunaren estereotipo bat duzu. Haatik, askotxo dira Pello bezalakok.

Tira, izan dira. Pello joan badoan belaunaldi baten arketipoa da. Josu da bestea. Pelloren txikitako laguna. Josu ere, euskaldunaren estereotipoa eta arketipoa duzu. Iraganekoa hori ere. Galdera: izate horiek agertuko al dira bertiz ere? Euskal Herriak eta munduak hartu duten norabidea aintzat hartzera, zaila iruditzen zait. Beno, nor daki hori ere.

Nobela ausarta dela diot. Ausardi horren adierazlea Ane pertsonaia duzu. Ez alferrik, ez hutsalean, kriminologo izate bidean dago Ane. *Agerrek* euskal kasua –arazo auzia gatazka– aditzera emateaz gain, kontzientziaren bidean jartzeaz harago, kriminologiaren galbahetik iragazten saiatzen da. Ekimen literarioa estimagarria iruditzen zait termino euskal arazoa horietan tratatu nahi izate. Ane duzu narratzailea eta nobelaren euskarri nagusia. Kriminologia ikasketak egiten ari dena.

Izan ere, nire aburuan betiere, euskal arazoa” delakoa arreta handiz behatu ezean, xehe-xehe aztertu ezean, ez dago euskaldunaren idiosinkrasia ezagutzerik, ez eta ezagutarazterik ere. Hots, pertsona edo komunitate bat bereizten dituen ezaugarriak, izaerak, ideiak eta jarrerak sakonki ezagutu ezean, etorkizun zaila du subjeto horrek. Nobelak izugarri laguntzen du bilatze horretan. Ane duzu euskalduntasunaren arketipo berria. Hor nonbait hori ere. Nire nahikaria, naski.

Badaukat, halaz ere, zehaztu beharreko kontu edo puntu bat. Nobelako protagonista nagusiak, Pello et Josu, 1958an jaiokak dira. ETA fenomeno sozio-politiko-kultural-langile-armatua jaino zen urteokak. Fenomeno bortitza. Hasieran espero ez zen bortizkeriaren egile eta eragile. ETari buruzko adjektibazio hori funtsezkoa zait, ETA osatu duten erakundeak ezagutu eta bereziko baditugu. Baita beren idiosinkrasia ezagutuko baditugu ere.

Horrexegatik edo, nobela politikaren planora ekarriz –*stricto sensu*–, hona aintzat hartzeko kontu bat, kontu garrantzitsua:

Pello eta Josu, Urrarieta eta Atekaitz auzoko Agerre eta Agiña baserrietako semeak, biak ala biak etakide potentzialen izaeraren eta idiosinkrasiaren ereduak dituzu. Alabaina, eredu estereotipatu sozial hori, arketipo horiek –izan ziren haiek, honekero– Euskal Herri osora zabaldu izan ziren Euskal Herri osorako “eredu baliagarriak” izan balira legetxe.

Hots, amestutako Euskal Herria ez dira Urrarieta eta Atekaitz, bistan da. Ez horiek soilik, alegia. Ordea, halaxe idealizatu izan zen Euskal Herria. ETA fenomeno, fenomeno soziala, fenomeno kulturala, fenomeno politikoa eta fenomeno armatua legez ulertzeko funtsekoa da “idealizazio” hori. Hartara, Euskal Herriaren izatea gisa horretako *engendro* legez ulertu eta onartu egin dugu.

Gogorra da diodana, onartezina izan daiteke askorentzat. Bereziki, Mari Karmen, Izaskun eta Josuren ildoan eta jitean ibili izan direnentzat. Izugarri sufritu duten pertsonak dira, bistan da. Baita, euren kontrakarrean jardun dutenentzat jasangaizta izan ere. Funtsean, euskaldunak euskaldunaren kontrakarrean jardun du historian barrena. Nabardunak ñabardura, horixe duzu *Agerrek* ekarri didana. Euskalduntasunaren bitasuna.

Nobela euskaldunaren bizitzaren izate dikotomikoaren adierazlea duzu. Alta bada, neronek, idazlearen keinu adierazgarri edota esperantzagarri gisara ulertua, izenburua *Agerre* duzu. Izan liteke *Agiña* eta *Agerre*. Izan liteke *Agerre* eta *Agiña*. Idazleak *Agerre* ipini dio. Ez da hautu hutsala.

Irakaspen gisara edo, hauxek

1. Euskaldunon izate esentziala eta existentziala kontrakarrean borrokatzen da. Jakina, bertze ezekin norbanakok legez, euskaldunak askatasunaren beharra dauka. Bere izate esentzialari eutsi behar dio hartakotz. Alabaina, bere norabidearen jabe izateko subjektu existentzialaren jabe izan behar du. Bitasun horretan dihardu euskaldunak. Idealismoan borrokatzen den subjektua da duzu dugu euskalduna. Nor izanen bada, bitasun horretan, oreka erdietsi behar duena.

2. Oharkabean edo ohartuta, aipu-egileen izenak aipatu ditut, baina ez guztiak. Hiru “laga” ditut bidean. Nobelaren atariko hiru aipuen egileak hauxek dituzu: Jose Azurmendi, Xabier Lete eta Joseba Sarrionandia.

Zaila zait esan nahi dudana adieraztea. Aipua aipu, pentsalaririk pentsalari, nire aburuan, herri honetako “intelligentsia”-k ez du herri honek behar zuen *torruia* eman. Tira, ostera esanda ere; herriak dio behar duen “*intelligentsia*” erdietsi. Errespetu osoz errana. Ez kontuan hartu soilik, aipatu izen horiek. Arren eta otoi!

Zer besterik nahi duzue esatea? *Agerre* nobela kari edo hizpide, euskaldunaren izatea ezinezkoa begitانتzen zait. Berezko kontzientzia duen izate libre horren jabe izatea behar duena, baina gauzatzen ezinean bizi dena, borrokatzen dena.

Bueno beno bon well, izate libre “izatearen kontzientziarik” ba al dago gaur egungo Munduan?

Ez gaitzen immolatu, beraz!

Datsegit 

Iruzkinek

Utzi iruzkina:

Erabiltzaile izena

Eposta

Captcha

☐ I'm not a robot

hCAPTCHA

Bidali